Hernaniko Udala

AMHER elkartearen eta Hernaniko Udalaren arteko hitzarmen bidezko dirulaguntza arauak

BILDURIK

Alde batetik: Fátima Fernández Bousebtaoui, 72.528.752-T Nortasun Agiria duena, Hernaniko AMHER elkartearen izenean (G20832812 IFZ).

Bestetik: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra Hernaniko Udaleko alkatea, HERNANIKO UDALAREN izenean (IFK: P2004300F) Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 7an hitzarmen hau sinatzeko baimendu eta agindua.

Bi ordezkariek, beren izenean eta eskubidean, behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri dokumentu hau sinatzeko eta hitzarmen hau ondoko aurrekari hauen arabera betetzeko:

AURREKARIAK

Lehena.- 2007ko urtarrilaren 27an lehenengo aldiz AMHER Kultur Aniztasunerako elkartearen eta Hernaniko Udalaren artean hainbat ekintza antolatu eta finantzatzeko hitzarmena sinatu zen. Ordutik 2011n, 2014an, 2015ean, 2018an eta 2022an hitzarmen berriak sinatu dira. Azken hau 2025eko abenduaren 31ra arte egon da indarrean.

Bigarrena.- Hitzarmen honen xedea bat dator Hernaniko Udalaren 2026-2028 Dirulaguntzen plan estrategikoan jasotako helburu estrategiko eta ekimen zehatzekin, zehazki:

- Herrian bizi den orok, edonon jaioa dela ere, eskubide berberak izan ditzan bultzatzea (7. lerro estrategikoa).

- Kulturartekotasuna sustatzea, jatorri eta kultur aniztasuna aberastasun eta aukera gisa ikus dadin lan eginez (7. lerro estrategikoa).

- Hernanin kulturartekotasuna eta jatorri ezberdinekoei eskubide berdintasunaren alde genero ikuspegitik lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteen jarduna diruz laguntzea (7. lerro estrategikoa).

Hirugarrena.- AMHERek hogeita hiru urte daramatza jatorri ezberdinetako pertsonen eskubideen alde lanean, kulturartekotasuna ardatz hartuta. Hernanin gai hauen bueltan berariaz lan egiten duen elkarte bakarra da, urte hauetan guztietan herritarren artean ere errekonozimendu nabarmena lortu duena.

2021. urtean Udalak landu eta onartutako Harrera Protokoloan ere, herrira etorri berrien harreran AMHER elkarteak betetzen duen paper garrantzitsua nabarmentzen da.

Hernaniko Udalak herri justuago eta berdinzaleagoa eraiki bidean elkarte honen garrantzia azpimarratzen du eta horren adibide da elkartearen eta udalaren arteko hitzarmena urteetan berritu izana.

Laugarrena.- Hitzarmen honen bidez AMHER elkarteak egiten dituen jardueretatik hauek babesten dira:

- Atzerritartasun gaietan aholkularitza: banakakoa edo taldekoa (hitzaldiak, tailerrak).

- Harrera komunitarioa: boluntario sarea, herriko eragileekin elkarlana, herritarren elkartasun sarea, zubigintza.

- Emakume etorkinen ahalduntzea eta parte hartzea sustatzea.

- Sentsibilizazioa. Batez ere migratzeko eskubidearen alde, arrazakeriaren aurka eta harrera komunitarioa indartzeari begirakoa.

Bosgarrena.- Hernaniko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 7an hitzarmen hau egiteko erabakia hartu du.

KLAUSULAK

1. Hitzarmenaren iraupena

Seigarrena.- Hitzarmenaren epea 2026ko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31 bitartekoa izango da.

Nolanahi ere bi aldeetako batek hitzarmena bertan behera utzi nahiko balu, gutxienez 2 hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste sinatzaileari.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa

Zazpigarrena.- Hernaniko Udalak AMHER elkarteari 83.000 €-ko dirulaguntza emango dio 2026 urterako. Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroan, hain zuzen ere.

2026ko aurrekontu baimendu zenbakia:
2026ko aurrekontu partida zenbakia: 1 1622.481.03.231.02 2026

4. AMHER elkartearen hainbat betebehar

Zortzigarrena.- AMHER elkarteak Hernaniko Udaletik jasotako dirulaguntza honako egiteko hauen gastuei aurre egiteko erabiliko du: Amherren aholkularitza eramango duen pertsonal laborala kontratatzeko, aholkularitza, sentsibilizazio kanpainak, hitzaldiak, eta administrazio gastuak.

Bederatzigarrena.- AMHER elkarteko langileek, emakume eta gizonen arteko berdintasun gaietan formazioa eduki beharko dute. Formazio hau gutxienez 50 ordukoa izan beharko da.

Hamargarrena.-AMHER elkarteak, urteroko arreta zerbitzuen inguruko informazioa, ekintzen memoria, eta finantzazio memoria biltzen dituen txostenean datuak sexuen arabera sailkatuak egongo dira eta hizkera ez sexista erabiliko da. Horretaz gain, memoria txostenean jasoko da ekintza bakoitza zein hizkuntzatan egin den.

Hamaikagarrena.

Hizkuntza betebeharrak.
a) AMHER elkartea, eskainiko dituen zerbitzuak egokitasunez eskaintzera konprometitzen da, hori bideratzeko kontratatuko duen pertsonal laboralak, lanari modu egokian aurre egingo diola bermatuko du. Hori dela eta euskaraz dakiten langileak kontratatuko ditu —Europako Erreferentzia Markoaren C1 maila edo parekoa dutenak ahoz eta idatziz—. Langile horiek titulurik ez badute, Euskara Zerbitzuak neurtuko du langile horiek euskaraz dakiten. Langile aldaketa edo langile berririk kontratatuko balitz, horrek ere euskaraz jakin beharko du. AMHER elkarteak horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari.

b) Hernaniko Udalaren Euskararen Erabilera Plana kontuan hartuta, AMHER elkartearen eta Udalaren arteko ahozko nahiz idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Horretaz gain Udaleko Euskara eta Politika Sozialak Sailekin elkarlanean, elkartearen jardueran euskararen erabilera normalizatzeko urratsak emango dira. Horretarako AMHER elkartearen langileetako bat lan horretarako izendatuko du eta urte hasieran adostuko dira urte horretako konpromiso eta urratsak.

c) AMHER elkarteak antolatzen dituen jarduerei dagokienean, kontuan hartuko du Hernaniko Udalaren Euskararen Erabilera Plana eta Hernaniko herriaren errealitate soziolinguistikoa. Beraz, elkarteak antolatzen dituen jarduerek herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituzte.

Horrenbestez, idatzizko adierazpenetan herritar multzo euskaldunari, eta bereziki adin txikiko eta gazteei zuzendutako idatzi, publizitate, iragarki, ohar eta gainerakoak —sare sozialak eta webgunea, barne— euskaraz izango dira.
Beste hizkuntzaren bat erabili behar denean, jarduera herritar multzo ez euskaldunari zuzendua dagoelako, herritarrei zuzendutako idatzi, publizitate, iragarki, ohar eta gainerakoetan —sare sozialak eta webgunea, barne— euskarari lehentasuna emango zaio.
Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko.

Ahozko adierazpenetan (hitzaldiak, , jaialdiak...) euskararen presentzia bermatuko da. Aldiz, adin txikiko eta gazteei zuzendutako jarduerak (ipuin kontaketak, esaterako) euskaraz izango dira.

Telefonoan erantzungailu automatikoa izatekotan jarritako mezuan euskarazkoa lehenetsiko da.

Hamabigarrena.- AMHER elkarteak urtero, abenduaren hasieran, hurrengo ekitaldirako prestatuta daukan ekintzen programa aurkeztuko du, eta aurrerago aldaketaren bat egin behar izanez gero, Hernaniko Udaleko Politika Sozialak Sailarekin adostuko du. Urteko ekintzen programaketan AMHER elkarteak bereziki kontuan hartuko ditu emakumeen eta gizonen egoera, premia, interes, helburu eta arazo desberdinak; zehazki emakumeei eragiten dien gizarte-desberdintasunak, eta baita Hernaniko errealitate linguistikoa ere.

Hamahirugarrena.- AMHER elkarteak, bere jarduerak aurrera ateratzeko egiten dituen barne bileretan; gehienbat erabakitze guneetan, sexuen arteko oreka emango da (%40-60 bitartekoa).

Hamalaugarrena.- AMHER elkarteak argitaratutako dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen

diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatuko dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna. Helburu horrekin, Hernaniko Udaleko Komunikazio Berdinzalerako Jarraibideen Gida hartuko du ainzat.

Hamabosgarrena.-AMHER elkarteak antolatzen dituen ekintzen berri emateko jendaurrean zabaltzen diren euskarrietan (esku-orri, ahots grabazio, kartel...) Hernaniko Udalaren logoa erabiliko da edota, ezinezkoa denean honen erreferentzia egingo da.

5. Dirulaguntzaren justifikazioa

Hamaseigarrena.-

1. Epea: Dirulaguntza epe honetarako zuritu beharko da: urtea bukatu eta hilabetera beranduenez, urte bakoitzeko urtarrilaren 31rako.
2. Diruz lagundutako jardueraren memoria, ondoko gutxieneko edukiarekin: Proiektuaren azalpena; dirulaguntza zer helburutarako eman den; egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak.
3. Egindako jardueren kostua justifikatzeko balantze ekonomiko laburtua, Hernaniko Udalaren dirulaguntza kontuan hartu gabe izandako DEFIZITA adieraziz.
4. Soilik fakturekin edota banku ordainagiriekin egiten diren gastuak hartuko dira kontuan, tiketak eta antzekoak ez.
5. Gastu eta sarreren zerrenda sailkatua aurkeztu behar da, EXCEL formatuan, gastu kontzeptuen arabera antolatuta. Zehaztuta izango ditu: gastuaren deskribapena, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta ordainketa data.
6. Ez da beharrezkoa izango faktura edo ordainagiriak aurkeztea, baina udalak beretzat gordeko du edozein unetan gastuaren egiaztagiria eskatzeko eskubidea, dirulaguntza eman eta gehienez 4 urtera arte, 2003ko dirulaguntzei buruzko lege orokorraren 39. artikuluan zehazten den bezala.
7. Jasotako beste dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta ebazpenen kopia.
8. Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantza hala badagokio).
9. Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

6. Aplikatu beharreko araubide juridikoa

Hamazazpigarrena.- Dirulaguntza hau arautuko du, dirulaguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Dirulaguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoak, bai eta Udal Diru-laguntzen araudiak.

Zuzeneko dirulaguntzetarako baldintzak:
- Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusia egotea (887/2006 Errege Dekretua, 65. artikulua).

- Hitzarmenaren iraupena bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legeak 49 artikuluan xedatutako gehienezko epearekin. Dirulaguntza gauzatu ahal izateko, Udalak urteroko aurrekontuan beharrezko gastu kontsignazioa gorde beharko du.

7. Onuradunaren aitorpena

Hemezortzigarrena.- Onuradunak aitortzen du ez dagokiola dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan dirulaguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

Zehatzago esan, erakunde onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela behartze bidean itzultze prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru-kopururik. Era berean, aitortzen du ez dagoela sartuta behartze bideko kobrantzako prozeduretan, Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla-eta.

8. Helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Hemeretzigarrena.- Dirulaguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da dirulaguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, dirulaguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

9. Kontabilitate liburu eta erregistroak, dirulaguntza egoki justifikatzea bermatzeko eta finantzak kontrolatzeko eskatuak.

Hogeigarrena.-Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzekoa zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

10. Jarraipenerako adierazleak

Hogeita batgarrena.-Hitzarmen honen jarraipen eta kontrol lana burutzeko, hainbat adierazle kuantitatibo eta kualitatibo hartuko dira oinarri.

Informazio horren baitan Adierazleen Fitxa eredua osatuko da (eranskinean), kontrol eta jarraipenerako tresna gisa.

11. Hitzarmena ez betetzea

Hogeita bigarrena- Hitzarmen honetan jasotakoa bete ezean, hitzarmena bertan behera geratuko da, eta Udalak dagozkion neurriak hartuko ditu.

Hogeita hirugarrena.- Hitzarmen honen inguruko interpretazio zalantzak Udalak ebatziko ditu eta hitzarmena aplikatzearen ondorioz bestelako eztabaidarik sortzen baldin bada, horiek Donostiako Auzitegiek eta Epaitegiek ebatziko dituzte.

Agiri hau irakurri ondoren, eta ados gaudela adierazteko, bi ordezkariek sinatu egin dute goian adierazitako lekuan eta egunean.

12. Atxikitako dokumentuak

Espediente honi ondorengo dokumentuak atxikituko zaizkio:

- AMHER elkartearen 2026rako plangintza eta aurrekontua.
- AMHER elkartearen estatutuak.
- Politika Sozialak Saileko arduradun teknikoaren txostena.
- Zerga betebeharren ziurtagiriak: Ogasuna eta Gizarte Segurantza.
- Banku kontuaren titulartasuna akreditatzen duen agiria.

Hernanin, 2026ko maiatzaren 7an

Udalaren aldetik:

AMHER elkartearen aldetik:

Alkateak:
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

Elkarteko Lehendakariak:
Fátima Fernández Bousebtaoui